

## DEUSTUKO IKASTOLAKO KONTINGENTZIA PLANA

### 2020-2021 IKASTURTEA

#### Sarrera

Dokumentu hau gure zentroaren ezaugarrietara egokitzen da Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak plan honen amaieran ikusgai dauden dokumentuetan adierazitakoa jarraituz.

Helburu nagusia zentroko pertsonen segurtasuna eta osasuna bermatzea da, bai eta jarduera akademikoa garatzeko antolaketa eta neurriak argitzea ere.

Lehenago eta behin, SARS-Cov2ren **tranmisio arriskua** nabarmen **murrizten** lagun dezaketen ekintzetan indar egin nahi dugu. **IKASGELARA ITZULTZEA** kartela

- 1. 1,5 metroko segurtasun-tartea** mantentzea pertsonen artean, arnas-tantak hitz egitean edo doministiku edo ezul egitean sortu eta zabaltzen dira-eta.
- 2. Maskarak erabiltzea eta arnas higieena zaintzea:** erabilera bakarreko zapiak erabiltzea ahoa eta sudurra estaltzeko edo, bestela, ukondoa tolestea doministiku edo ezul egitean, maskara erabili ezean.
- 3. Eskuen higieena.** Sarri garbitu ura eta xaboiarekin edo soluzio hidroalkoholikoarekin. Saihestu begiak, ahoa eta sudurra ukitzea.

**4. Garbiketa, desinfekzioa eta aireztapena.** Sarritan garbitu gainazalak. Lan-eremua utzi garbi, garbiketa errazteko. Aldian-aldian espazio itxiak aireztatu.

**5. kontaktu-kopurua murriztea.** Talde txikiagoetan egin jarduerak, talde egonkorak osatuz.

Zentroko espazio komunetan pertsonak elkartzea saihestuko da; edukiera mugatuko da pertsonen arteko distantzia mantenduz eta maskara jarrita.

Garrantzitsua da neurri horiek kontuan hartzea, ahal den neurrian, kutsatzeak ez zabaltzeko, osasuna eta osasun pertsonala ez larriagotzeko eta konfinamendu-egoeretara itzultzea ekiditzeko.

### **COVID-19aren gaiarekin lotutako zentroko arduradunaren figura**

Ikastetxeko Zuzendaritza Taldeari dagokio irakasle bat izendatzea, COVID-19ren erreferentziako arduraduna izan dadin. Figura horrek dituen atribuzioak eta erantzukizunak ikusita, Zuzendaritza Taldeak eginkizun hori bere gain hartu du; lehenik eta behin, zuzendariak, arduradun nagusi gisa, eginkizun horien zati bat taldeko gainerako kideei eskuordetuko die, bai eta une jakin batzuetan egokitzen jotzen duenari ere. Taldeak honako alderdi hauek antolatzen eta garatzen direla zainduko du:

AURKIBIDEA:

[ZER EGIN GAIXOTASUN SINTOMAK ANTZEMANEZ GERO](#)

[OSASUN NEURRIAK](#)

[ESPAZIOAK, ORDUTEGIAK ETA ZIRKULAZIOA. Sarrera-irteerak](#)

[ESKOLA ZERBITZUAK. GURASO ELKARTEA](#)

[ERREFERENTZIAZKO DOKUMENTUAK](#)

## ZER EGIN GAIXOTASUN SINTOMAK ANTZEMANEZ GERO

a) Ikastolara egunero bertaratzen diren lagun guztiek ondoko sintomen agerpena zaindu beharko dute:

- 37 gradutik gorako sukarra
- eztul idorra
- eztarriko edota tripako mina
- arnasa hartzeko zailtasuna
- usainik edo dastamenik ez izatea

Horrelakorik susmatuz gero, **etxean gelditu** eta beren osasun-zentrora deitu beharko dute.

- b) Beren **etxeko norbaitek COVID-19aren diagnostiko positiboa jaso badu**, gurasoek edo tutoreek horren **berri emango dute ikastolan** eta seme/alaba **etxean mantendu** beharko dute.
- c) Gaitzaren **sintomak ikastolan antzemanaz gero**, seme-alaba **lehenbailehen jasotzera etortzeko eskatuko zaio familiari eta bitartean isolamendu gelan egongo da. Familiak osasun zentrora deitu** beharko du haren jarraibideak betetzeko eta bertan aztertuko da ikaslearen egoera. Balorazioa egin arte, etxean isolatuta mantenduko da.

Emaitza lortu arte, ez da kontaktu estuei buruzko ekintzarik adieraziko, eta irakaskuntza-jarduerak normaltasunez jarraituko du, higiene-neurriak zorrotzuz.

- d) Gaitzaren sintomak **langileren batean** agertuko balira, bere egoeraren **berri emango zaio zuzendariari** zuzendaritza taldeko kideren baten bidez, ikastola utzi eta **etxera joango da. Familia-medikuari deituko** dio telefonoz eta haren jarraibideak beteko ditu. **Zuzendaritza-taldea arduratuko da** Hezkuntza Saileko **prebentzio-zerbitzuari** gorabehera guztien eta Covid 19 **kasuaren berri emateaz**, bai eta kasu bakoitzean ikastetxean izan ahal diren kontaktuen berri emateaz ere. [prebentziohezkuntza@euskadi.eus](mailto:prebentziohezkuntza@euskadi.eus) Bizkaia 944031194
- e) Larritasun- edo arnasteko zailtasun-sintomak izanez gero, 112 zenbakira deitu behar da.
- f) Haur edo irakasleren batek Covid-19n **positibo emanez gero**, kontaktutzat hartuko da **gainerako ikasgela edo taldea, haurrak zaintzeko edo hezteko ingurunean, eta etxeko itxialdia egin beharko du 14 egunez**, azken kontaktua izan den egunetik zenbatzen hasita.
- g) Ikastetxera itzultzea edo aurrez-aurreko hitzordua izatea jakinarazten denean ohartaraziko da **aipatutako sintomak dituen inork ez duela joan behar**. Arduratsu jokatzeko oso garrantzitsua da.

- h) **Ikasleren bat gaixotu ezkeru betetzeko orria** Ikastolan ikasleren bat gaixotuko balitz irakasleak ikaslea isolamendu gelara eramango du, zaintzako irakaslea abisatuko da eta irakasleak **fitxa beteko du** (SITE- CORONABIRUS 2020)

## OSASUN ETA SEGURTASUN NEURRIAK

1 agertokia eta 2 agertokian bertaratu behar direnentzat

Egunero, higieneri eta portaerari buruzko prebentzio-neurriak gogoratzeko saioak egingo dira adin bakoitzera egokituta.

**IKASGELARA ITZULTZEA** kartela eta **Koronabirusa prebenitzeko GOMENDIOAK** kartela azalduko dira eta korridoreetan jarrita egongo dira. **NOIZ ETA NOLA ERABILI MASKARA** kartela gela guztietan azalduko da eta korridoreetan jarrita egongo da.

- **Maskararen erabilera**

Maskara derrigorrezkoa da Ikastolan sartzen denetik atera arte heldu guztientzat eta LHko 1. mailatik gorako ikasle guztientzat. Ikasleek eurek ekarriko dituzte maskarak; ekarri ezean jarri arte ez da eraikinera sarrera onartuko.

Maskarak ez dira ikastetxeko zakarrontzietan botako.

- **Temperatura**

Temperatura neurtuta etorriko da ikastolara.

- **Eskuen garbiketa**

Eskuak sarri garbitu beharko dira kutsadurak ekiditzeko.

Ikasgelan sartu eta irten guztietan eskuak hidrogelaz garbituko dira LHko 1. mailatik gora.

Haur Hezkuntzan ura eta xaboiarekin egingo da eskuen garbiketa irakasleek erabakitako une egokietan eta beti ere gelatik atera aurretik.

Norberak bere **materiala** izango du bestena **konpartitu gabe**.

Pedaldun zakarrontziak gela eta komun guztietan egongo dira erabilera bakarreko zapiak botatzeko. Ikasleek euren zapiak ekarri beharko dituzte.

Ur botilak ere ekar dezakete erabilera egokia bideratuz.

- **Gel hidroalkoholkoa**

Ikastetxeko espazio komun guztietan (ikasgelak, bulegoak, aretoak, etab.) gel hidroalkoholikoaren banagailuak, ikasleen eta irakasleen eskura egongo dira. Era berean, familiek eta ikastetxetik kanpo datozenek ere banagailuak erabili beharko dituzte eraikinerara sartu bezain laster.

- **Espazioak aireztatzea.** Nahitaezkoa da irakasleek ikasgela edo erabilera komuneko irakaskuntza-espazioak aireztatzea eskola-sai bakoitza amaitzean, gutxienez 10 minutuz. Atsedenaldira eta eskolak amaitzean ere, leihoak irekita utziko dira aireztapena errazteko, kanpoko tenperatura edozein dela ere.

- **Zentroaren garbiketa**

Hezkuntza Sailak hasiera batean aurreikusitako zerbitzua handitzea adostu du enpresa esleipendunekin. Zentro guztiek garbiketa-langileak izango dituzte goizeko ordutegian, komunen eta gainazalen garbiketa indartzeko (heldulekuak, botoiak, barandak, etengailuak, etab.).

## ESPAZIOAK, ORDUTEGIAK ETA ZIRKULAZIOA. [Sarrera-irteerak](#)

### 1. agertokian eta 2. agertokian bertaratu beharko direnekin

**Irailaren 7an** eskola-jarduera hasiko da Haur Hezkuntzatik DBHko 1. eta 2. mailetara arte. DBH 3 eta DBH 4 irailaren 15ean hasiko dira.

|            |       |       |
|------------|-------|-------|
| irailak 7  | DBH 1 | 10:00 |
|            | DBH 2 | 11:00 |
| irailak 15 | DBH 3 | 10:00 |
|            | DBH 4 | 11:00 |

Sarrerako pilaketak ekiditzeko eta antolaketa era egokian ezagutarazteko asmoz, **HAUR HEZKUNTZAKO ETA LEHEN HEZKUNTZAKO ikasleak** lehenengo bi egunetan, **irailaren 7an, astelehena, eta 8an, asteartea**, ordutegi honetan **sartuko** dira **beti JON ARROSPIDE kaleko atetik**:

**9:00etan** LH4-LH5-LH6

**9:15ean** LH1-LH2-LH3

**9:30ean** HH4-HH5 HH2(1. txandakoak)

**9:45ean** HH3

Irailaren 9tik ohiko ordutegia izango da.(ikusi [egutegia](#))

Ikasleekin **heldu bakar** sartuko da beharrezkoa denean eta pilaketak ekidituko direla zainduz.

Ordukoak izatea erregutzen da; lehenago heldu ezker, eraikinaren kanpoko aldean ilara eta distantzia mantenduz itxaron beharko da emango diren zirkulatzeko eta kokatzeko jarraibideak bete arte.

Seinalatutako bidea jarraituko da, atzera egin gabe elkar topaketak eta gurutzaketak ekiditzeko.

Berandu heldu ezker, ez da beste txandakoen aurretik igaroko. Itxaron egingo da distantziak mantenduz eta emango zaizkion jarraibideak beteko dira. (Ez da idazkaritzako atea erabiliko)

Gertaerak, oharrak edo salbuespenak komentatzeko tutoreengana ez hurbildu sarrera-irteeretan. Telematikoki egingo da, edo patioko arduradunarengana joko da horretarako, pilatu gabe eta distantzia eta ordena pazientziaz mantenduz.

Sarrera-irteera estekan dagoen krokisan azaltzen den antolaketa jarraituko da, era honetan:

## HH-LH

**JON ARROSPIDE** kaleko atetik patiora **sartuko** dira:

- **LH1-2-3** zabu aldeko aterpean adierazitako gunetan kokatuko dira era ordenatuan arrapatatik lehen eta bigarren pisuko euren geletara joateko.
- **Lh 4-5-6** frontoi aldeko aterpean adierazitako gunetan kokatuko dira era ordenatuan eskilera zabaletatik bigarren pisuraino igotzeko euren geletaraino.
- **3-4-5 urtekoak** **JON ARROSPIDE** kaleko atetik eskultura aldeko ateraino. Komun aurrean egon beharrean ateratzeko





Goizeko sarrerak orain arte egin diren era berean egingo dira.

Eguerdian, 13:00ean orain arteko era berean ere aterako dira. Kontuan izan **HH2koak 12:50ean** aterako direla besteekin ez elkartzeko.

**LH 6 12:50ean** ateratzen da , **LH5 12:55ean** eta **LH4 13:00etan**. Beraiekin ateratzen diren **irakasleak irteera ateraino lagunduko dituzte** etxera doazen ikasleak. Jantokian geratzen diren ikasleak euren kokapenetan geratuko dira jantokiko begiraleekin dagokien guneetara bideratzeko era ordenatuan eta talde egonkorrak mantenduz.

Goiz da arratsaldez hasita jantokian geratzen diren LHko 4-5-6 ikasleak zuzen geratuko dira 2. pisuan begiraleekin egon behar diren guneetan.

**Lo kuluxka egin gabe jaten geratu diren HH2ko umeen** bila 13:20an etorriko dira idazkaritzako atea erabiliz.

**Jaten geratu eta lo kuluxka bota duten HH2ko ikasleen** bila 14: 50ean etorriko dira Jon Arrospideko atea sartzeko erabiliz eta Botika zaharretik irtentzen direlarik.

**Jantokian geratzen diren HH3tik gora eta LH6ra arteko ikasleak** ikasturte hasieratik egindako mugimenduak eta ezarritako tokiak erabiliko dituzte baina ikasgelara sartzeko orduan honako hau jarraituko dute:

HH 3-4-5 begiraleekin euren geletara hurbilduko dira 14:55ean eta han zain egongo dira irakasleak 15:00etan heldu arte.

LH1-2-3 begiraleekin zabu ondoko tokietan egongo dira itxaroten 14:50etik irakasleak 15:00 etan heldu arte.

LH4-5-6 ez dira jantokitik aterako 15:00ak arte, beste gurasoak alde egiteko eta patioa husteko denbora izan arte. Euren frontoi aldeko tokietara joango dira handik irakasleekin ikasgeletara igotzeko orden honetan LH6-LH5-LH4

**Arratsaldeko irteeran**, kontuan izanda HH2tik LH6ra arteko ikasleria aterako dela, pilaketak ekidetzeko honako hau egingo da:

|  |                |
|--|----------------|
| HH2 16:45 ean. Jon Arrospide kaleko atletik sartu eta Botikazarretik atera beste ikasleekin elkartu baino lehen. | LH 1 17:00etan |
| HH3 16:50ean   | LH 2 16:55ean  |
| HH4 16:55ean   | LH3 17:00etan  |
| HH5 17:00etan  | LH4 17:00etan  |
|  | LH5 16:55ean   |
|  | LH 6 16:50ean  |

LH 4-5-6 ko ikasleekin ateratzen diren irakasleak ikasleak irteera ateraino lagunduko dituzte, era egokian atgeratzen direla ziurtatuz.

Gogoan izan pilaketak eta atzerapenak ekiditu behar ditugula, umea jaso bezain laster kaleratu behar dela eta euria izan ezkeru aterpeetan ez dela pilatu behar. Mesedez izan ordukoak denon onerako!

Asteazkenetan, ikasleek klaserik ez dutenez arratsaldez, jantokian geratzen direnak 15:00eko irteeran era honetan aterako dira:

- 14:50ean HH2ko ikasleak, autobusez joan behar direnak izan ezik.
- 15:00etan beste guztiak zutobusean joan behar direnak izan ezik.
- 15:10ean autobusez joan behar direnak.

#### **DBH:**

- SARRERA: 8:05ean sartuko dira patioan. 8:10 lehen txirrina jotzean DBH 1- DBH2 koak igoko dira. Bigarren txirrina 8:15ean jotzean DBH 3- DBH4koak igoko dira. 14:10ean .
- IRTEERA: 14:10ean DBH1-DBH2koak aterako dira eta 14:15ean DBH3-DBH4koak aterako dira. IRUÑA kaleko atea erabiliko dute, eskilara estuak erabiliko dituzte.
- Jolastorduak beheko patioan eta 2. pisuko jolastokian egingo dira. Komunetan ez dira bi ikasle baino gehiago sartuko.
- Heziketa fisikoa Eskilara zabaletatik
- Laborategira Eskilera zabaletatik
- Idazkaritzara eskilera zabaletatik
- OHARRA: eskilara estuak ez dituzte ikasleek erabiliko eguerdiko irteerarako izan ezik.

## Talde egonkorrak

Dauzkagun guneak, antolaketa eta giza baliabideak kontuan izanda ikastetxean honako Talde Egonkor egongo dira:

|             |             |                |
|-------------|-------------|----------------|
| <b>HH 2</b> | <b>LH 1</b> | <b>DBH 1-2</b> |
| <b>HH 3</b> | <b>LH2</b>  | <b>DBH 3-4</b> |
| <b>HH 4</b> | <b>LH 3</b> |                |
| <b>HH 5</b> | <b>LH 4</b> |                |
|             | <b>LH 5</b> |                |
|             | <b>LH 6</b> |                |

Talde horiek erabiliko dira erreferentziako espazioak ezartzeko sarrera/irteeretan, jolasaldietan, jantokian, goizeko haurtzaindegian eta, emaitza positiboaren ondorioz isolatuz gero, kontaktu gisa.

LH 1 eta LH 2 goizeko jolasaldia banatuta egingo dute txandaka 3. pisuko psikomotrizitate gela erabiliz. LH3. mailakoengandik aldentuta egingo dute. Jatorduko jolasaldiak ere banatuko dituzte, begirale bana jarritz.

LH 4- LH5- LH6 beheko patioan egin arren goizeko jolasaldia, eremua banatuta eta txandaka egingo dute. Jantokiko jolasaldian ere banatuta egongo dira begirale banarekin gutxienez.

Jantokian geratzen diren DBHko ikasleak, kopuru txikia denez (23 denera), elkarrekin egongo dira. (DBH1-2 :19 + DBH 3-4 : 4)

Joan etorrietan, pasabideetan, eskilaretan **elkar gurutzatzea saihestuko da; norbera bere eskumatik ibiliko da;** hitz egiten edo geldi geratzea ekidituko da. Arnas-tantarik ez dela isuritzen zainduko da.

Jolaserako aldietan kontaktuko jolasak saihestuko dira. Seguritate distantzia berma dezaketen **jolasak edo jarduerak bilatuko dira.**

-----

Ez da ikastetxeaz kanpora gaua igarotzeko jarduerarik bideratuko.

**Jarduera osagarriak** bakarrik osasun-agintariak proposatutako neurriak bermatzen badira programatuko dira.

-----

**IDAZKARITZA/ ATEZAINITZA:** bai idazkaritzako beharrak zein atezaintzakoak bide telematikotik edo telefonoz egingo dira beharrezkoa edota ezinezkoa denean aldez aurretiko hitzordua eskatuz.

[idezkaritza@deustukoikastola.net](mailto:idezkaritza@deustukoikastola.net)

944280126

Aldez aurretiko hitzordua ezarriko da.

### **Eskola garraioa**

Eskola-garraioari dagokionez, indarrean dagoen araudia aplikatuko da COVID-19ren aurkako prebentzio-neurriari dagokienez, bai eta *EAEko ikastetxeetan COVID-19ren eraginpeko arriskuaren aurrean Lantokietako laneko arriskuen prebentziorako neurriak* dokumentuan jasotakoei dagokienez ere.

Halaber, gomendagarria da ikasleek eserleku finkoak izatea autobusean, garraiatzen diren haurren zerrenda izatea eta bertan duten lekua. Ikasle guztiak eta gainerako langileak uneoro maskarilla erabiliko du, baina 6 urtetik beherakoentzat ez da derrigorrezkoa, baina bai gomendagarria.

## ESKOLA ZERBITZUAK. GURASO ELKARTEA

Atal honi dagokionez, DIGE Deustuko ikastolako Guraso Elkarteko familien elkarteak familiei [egindako jakinarazpena](#) hartuko da kontuan.

Jakinarazpen hori [www.deustukoikastola.eus](http://www.deustukoikastola.eus) webgunean kontsulta daiteke.

## ERREFERENTZIAZKO DOKUMENTUAK

Covid-19k eragin ditzakeen balizko egoerei erantzuteko, ikastetxeak erreferentziazko **dokumentu hauek hartuko ditu kontuan**. Hauen ildo orokorrek jarduteko esparru gisa balio dute, egoeraren arabera egokitu badaitezke ere:

1. Ikastetxeetan koronabirusaren aurrean jarduteko Protokolo Orokorra,(ekainaren 26koa) [Hezkuntza Sailarena](#).

2. 2020-2021 ikasturtearen hasierako jarduketa-[protokolo osagarria](#) eta ikastetxeetan COVID-190 kasuak agertzen direnerako jardunbideak.(abuztuaren 28koa)
3. 2020-2021 ikasturtea antolatzeke Ebazpenak
4. Ikastetxeko Kontingentzia Plana
5. Lan-arriskuen prebentziorako neurriak EAEko ikastetxeetan, COVID-19ren eraginpean egoteko arriskuari aurre egiteko; Hezkuntza Sailaren [Lan Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuak](#) ezarriak

Informazioari adi egon behar dugu. Horretarako, Osasun Sailaren webgunea izango dugu, zeina etengabe eguneratuta baitago hemen: <https://www.euskadi.eus/covid-19-koronabirus-berria/>

#### ARDURAK ETA KOMUNIKAZIO BIDEAK (Arduradunentzat soil-soilik)

|  |                       |   |
|--|-----------------------|---|
| <b>ZUZENDARIA</b>  | María Jesús Gorostiza | <a href="mailto:mariajesus@deustukoikastola.net">mariajesus@deustukoikastola.net</a>  |
| <b>ESI</b><br>ERAKUNDE SANITARIO<br>INTEGRATUA<br>BILBAO - BASURTO | Roberto Abad García   | <a href="mailto:roberto.abadgarcia@osakidetza.eus">roberto.abadgarcia@osakidetza.eus</a><br>(ordezkoa urriaren 4ra arte Mónica Moreno Martín <b>607013991</b><br><a href="mailto:monica.morenomartin@osakidetza.eus">monica.morenomartin@osakidetza.eus</a> )<br>irailaren 24tik <b>Elena Fernandez Sanchez</b><br><a href="mailto:elena.fernandezsanchez@osakidetza.eus">elena.fernandezsanchez@osakidetza.eus</a> |



|  |                 |  |
|--|-----------------|--|
|  |                 | <p><b>2020/10/01 ESKOLA OSASUN OSI BILABO BASURTO</b><br/> <a href="mailto:eskolaosasuna.osibilbaobasurto@osakidetza.eus">eskolaosasuna.osibilbaobasurto@osakidetza.eus</a></p> <p><b>COVID10 Kasu eta Kontaktuen Erizain kudeatzailea:</b><br/> <b>Elena fernandez Sanchez/ Rocio Fortes Mártil</b></p> |
| IKUSKARIA  | Asier Egiraun   | <a href="mailto:hez kib03@euskadi.eus">hez kib03@euskadi.eus</a>   |
| HEZKUNTZA SAILA<br>prebentzio-zerbitzua            | Beatriz Sastre  | <a href="mailto:prebentziohez kuntza@euskadi.eus">prebentziohez kuntza@euskadi.eus</a><br>Bizkaia 944031194<br><br><a href="#">Galdetegia bete ikasle zein irakasle positiboa denean</a>   |
|  |                 | <a href="#">Bereziki sentikorrek diren langileen balorazioa egiteko galdetegia</a>   |
| <b>Gaska jantokiko<br/>entrepresa kudeatzailea</b> | Urko Villanueva | <a href="mailto:urko.v@grupogasca.com">urko.v@grupogasca.com</a>   |

**Ikasturte hasieran hartutako neurri hauek, aldatu egin daitezke pandemiaren bilakaeraren arabera, eta aipatutako protokoloetan jasotako egoeretara itzul daiteke.**

Azken eguneratze data: **2020-10-03**

**Aldaketa egin ezkerro INIKAREN bidez jakinaraziko da.**

## KONTUAN IZATEKO HOBEKUNTZAK EDOTA ALDAKETAK

### Zelai berdearen erabilera eta kiroldegiko kantxak

Irailaren 14an jakin genuen urteetan erabiltzen ditugun kiroldegiko esparruetan aforoa eurek kalkulatuakoaren arabera bete beharko dugula, era honetan:

#### **ZELAI BERDEAN 32 PERTSONA**

#### **KIROLDEGIKO KANTXAK 168 PERTSONA : 3 = 56**

Hori dela eta, LH 1-2-3 koek txandak antolatu dituzte gelekina batera, euria egingo luken egunetan bezala.

DBHkoek, beste espazio egokirik ez delako aurkitzen eta ikasle nagusien aukera aprobetxatuz, Batxillergoa ere dagoen beste institutueta egiten dena erduztat hartuta, **DBH3- 4 barruko eskirelak eta Iruñeko euren irteerarako atea erabiliz 11:00etan Ikastolatik aurreko parkera aterako dira eta 11:30ean sartuko dira.** Beraz, ordutegi horretan barruko eskilerak erabiliko dituzte.

**DBH 1 eta DBH2 batera egongo dira beheko patioan 11:00etatik 11:30etarako jolastorduan** baina mailak banatuko dira eremuka.

Jatorduko jolasdirako DBHko ikasleak ikasgela bitan ( DBH1-2: DBH1.C / DBH 3-4: DBH 4. C) geratuko dira LH4-5-6 koak jantokira jeitsi arte (14:15-14:25) . Ondoren bigarren pisuko patioan eta zelai berdean egongo dira talde egonkorrak mantenduz.

## ATEZAINZA

Ikasturte honetan lau ate ordutegi desberdinetan zaindu behar direla kontuan izan behar dugu.

DBHkoen sarrera-irteeretan atezain bakarra egongo da ate bat soikik zabaldu, zaindu eta itxi behar delako. Goizetan idazkaritzako atean Goizeko zaintza zerbitzuko arduraduna egongo da goizeko zaintza zerbitzua erabiltzen duten ikasleen harrera eta kontrola izateko.

9:30eko sarrerako JON ARROSPIDEKO atean atezain bat egongo da zabaldu, zaindu eta ixteko. BOTIKAZAHARREKO irteera atean beste atezaina egongo da atea ireki, zaindu eta ixteko. Bitartean, idazkaritzako atea irakasleok daukagun giltza erabilia zabaldu beharko dugu. Idazkaritzara datozenekin idazkaritzakoak arduratuko dira zabaltzen eta harrera egiten. Ez zaio beste edonori atea irekiko edo pasatzen utziko.

JON ARROSPIDEKO sarrera atea itxi ondoren atezainak idazkaritzako atea zainduko du. Berandu datozen beste ikasleak idazkaritzako sarreran geldituko dira, HH-LHko **zaintzako irakasle**arekin, datuak dagokion taulan idatzi ondoren, igotzeko.

11:00etan eta 11:30ean IRUÑA kaleko DBHko ikasleen sarrera-irteerako atea zabaltzen, zaintzen eta ixten atezain bat egongo da.

13:00etako irteeran JON ARROSPIDE kaleko sarrera atean atezain bat egongo da atea zabaltzeko, zaintzeko eta ixteko. BOTIKAZAHARREKO irteera atean beste atezaina egongo da atea zabaltzeko, zaintzeko eta ixteko.

15:00etako sarreran ATEZAIN BAKARRA egongo da. JON ARROSPIDEKO sarrera atea zabaldu, zaindu eta itxi egin behar da. BOTIKAZAHARREKO irteera atea zabaldu, zaindu eta itxi egin behar da. Momentuz, HH-LHko **zaintzako irakaslea** bertan egongo da (Botikazarreko irteera atean) asteazkenean izan ezik, atezaina heldu arte.

**Asteazkenetan, Jantokiko arduraduna egongo da Jon Arrospideko sarrera** atean 14:55etik 15:00ak arte gurasoak umeen bila sartu arte HH2- 14:50ean HH3tik LH6ra - 15:00etan

Atezaina Botikazarreko atean egongo da autobuseko ikasleak atera arte 15:10ean

**17:00etako irteeran** ATEZAIN BAKARRA egongo da. JON ARROSPIDEKO sarrera atea zabaldu, zaindu eta itxi egin behar da. BOTIKAZAHARREKO irteera atea zabaldu, zaindu eta itxi egin behar da. **Momentuz, ikasketaburua egongo da atezaina heldu arte.**

Umeak markatutako guneetan egongo dira gurasoak (familia bakoitzeko bakarra eta soilik ezinbestekoa denean) batzeko. Pilaketak ekidetzeko ahal den arinen irteera atera joango da hor ere tokia uzten dela kontuan izanda.

Kontuan izan autobusez joan behar diren umeak (asteazkenetan eguerdiko 15:10ean eta besteetan 17:05ean ere bertatik aterako direla.)

## 1. ERANSKINA: FAMILIENTZAKO DEKALOGOA

DEUSTUKO IKASTOLak zaindu egingo du, bereziki COVID-19 epidemiak eragindako egoera honetan, familiekin egiten den komunikazioa, bai irakasle tutoreengandik jasotako orientazioei dagokienez, bai zentroko zuzendaritzak eta administrazio arloarengandik jasotakoei dagokienez. Komunikazio kanala INIKA izango da.

Ikasturte hasieran bilerak egingo dira familiekin. Osasun Sailak eta Udal Prebentzio eta Osasunaren Zaintza Zerbitzuak helarazitako irizpideek betearazpena bermatuz Kontingentzia Planean txertatu ditugun neurrien berri emango zaie.

1. Ikasleak ezingo dira zentrorra bertaratu sukarra izanez gero (>37°C). Hala, familiek tenperatura kontrolatu beharko dute zentrorra iritsi baino lehen.
2. Pertsona bakarrak lagunduko du zentrorra eskola ordutegiaren hasieran edo amaieran, 18 urtetik gorako heldua familiako, eta beharrezkoa den kasuetan soilik. Eraikinerak ez goizegi ez beranduegi iristea lehenetsiko da, barruko lekualdaketen kontrola errazte aldera. Sarrera-irteeretan pilaketak ekidituko dira. Patio hutsik geratu beharko da 9:10/9:40an, 13:10ean, 15:10ean eta 17:10ean.
3. Deustuko Ikastolan sartu ahal izango da baldin eta hitzordua edo baimena baduzue.
4. Familiak eta ikasleak ezin izango dira eskolaren inguruan pilatuta egon. Eurria egin ezkererantz aterpeetan pilatzea ekidituko da.
5. Eskolan sartzen den edonork beren maskara izan behar du, eta eskola orduetan zehar erabiltzeko baldintza higienikoak bermatu beharko dituzte maskara horiek.

6. Familiek lagundu egingo dute zentroak helarazitako jarraibideekin, oinarrizko higiene ohiturak errazteko asmoz:

- zentroko seinaleak errespetatu
- maskara erabili
- eskuak garbitu
- gelak aireztatu
- bizikidetza talde egonkorraren parte izan

7. Ikasle batek sintomak erakusten baditu zentroan, familiari jakinaraziko zaio. Beraz, derrigorrez eman behar dira telefonoz harremanetan jartzeko zenbakiak (bat baino gehiago, aukeran).

8. Ikasle batek sintomak erakusten baditu bere etxean, familiak tutoreari jakinaraziko dio, eta beharrezko informazioaren berri emango dio.

9. Hala eskatuz gero, familiak zentroaren esku jarriko du, trazabilitatearekin lotutako arrazoiak tarteko, zentrotik kanpo egiten dituen eskolaz kanpoko jardueri buruzko informazioa.

10. Ikasleen gurasoek edo tutoreek eremu emozionalarekin lotuta komenigarritzat jotzen duten informazio guztia helaraziko diote beren semearen edo alabaren tutoreari, baldin eta eremu horretan COVID-19 testuinguruari lotutako gabezia/zailtasunen bat aurreikusten bada. Azkenik, eta tarte horretan familiei laguntzeko asmoz, Hezkuntza Sailak [“COVID-19 Familientzako orientabideak”](#) izeneko dokumentua argitaratu du , etxean osasun fisikoa eta emozionala zaintzeko gomendio erraz batzuk jasotzen dituen.

## Familien funtsezko eginkizuna

Dokumentu honetan jasotako antolaketa-neurri asko ikasleentzat, batez ere adin txikikoentzat, gogorrak edo harrigarriak izan daitezke. Familiei laguntzeko eskatzen diegu pandemia honen aurrean esplikatur eta neurriak transmitituz betiere ikuspegi positibotik, ereduarekin irakasten, egoera zailak desdramatizatzen, ez estigmatizatzen eta osasun emozional hobea lortzen laguntza ematen.

Denon artean, ziur ikasturte honetan bizitzea tokatuko zaiguna gaitztea lortzen dugula.

## COVID-19ren aurrean jarduteko estrategiak 2020-2021 eko URTEKO PLANEAN

2020-21 ikasturtean Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan koronabirusaren (sars-cov-2) aurrean Jarduteko Protokoloaren arabera hiru egoera aurreikusten dira:

- **1. agertokia:** aurrez aurreko irakaskuntza-jardueraren garapen normalizatua. Irailaren 1etik aurrera daramaguna.
- **2. agertokia:** bitarteko egoera bat, ikastetxeak irakaskuntza .jardueraren antolamendu malgu batera behartzen dituena, aurrez aurreko jarduera eta jarduera telematikoa txandakatu eta aldi berean egin ahal izateko, etapa, ikastalde edo ikasle jakin batzuen presentziasuna lehenetsiz.
- **3. agertokia:** konfinamendua eta hezkuntza-jarduera ez- presentziala eskatzen ditu.

2. eta 3. agertoki baten aurrean hartu diren neurriak 2020-2021eko URTEKO PLANEAN adierazita daude.